

EUSKARAREN ERABILERAREN ORDENANTZA

2005.eko otsailaren 16ko 20. NAOn argitaratua

Sarrera

Euskara Olaztiko udalerriko hizkuntza ofizialetako bat da. Udalaren helburua da euskara herritarrendako zerbitzu orokorretarako lan hizkuntza bihurtzea. Hortaz, bada, beste hizkuntza bat izatea Olaztiko Udalaren zereginetan.

Euskarak herritar guztien elementu integratzailea izan behar du, eta hizkuntza dela-eta herritarrak baztertzea eragozten ahaleginduko da Udala.

Olaztiko Udalak, ordenantza honekin, tresna egokia bereganatzen du euskararen defentsaren bidetik jarraitzeko. Ordenantza honek euskararen erabileraren sustapen eta normalizaziorako udal ordenantzaren forma juridikoa hartzen du.

I. Aplikazio esparrua

1. artikulua. Olaztiko udal administrazioaren euskararen eta gaztelaniaren erabilera indarra duen araudiak, ordenantza honek edo aurrerago eginen direnek ezarritako xedapenek arautuko dute.

II. Hizkuntzen erabilera orokorra

2. artikulua. Olaztiko Udalak, orokorrean, euskara eta gaztelania erabiliko ditu bere harremanetan, ordenantza honen artikuluen aplikaziotik heldu diren berezitasun eta zehaztapenekin.

III. Barne erabilera.

3. artikulua. Izaera administratiboko barne-jarduerak hizkuntza bietan eginen dira.

4. artikulua. Olaztiko organo ezberdinek erabilitako barne-inprimaki guztiak hizkuntza bietan idatziko dira.

5. artikulua. 1. Bulego nahiz langoletako erroteruak eta antzeko beste adierazleak hizkuntza bietan egonen dira.

2. Edozein motatako inprimakien idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre zigilatuak eta antzeko beste elementuak hizkuntza bietan eginen dira.

6. artikulua. Ordenagailuen programek eta udal bulegoetan erabiltzeko eskuratutako material orok, ahal den neurrian, elebitan funtziona dezaten egokituta egon behar dute.

7. artikulua. Olaztiko Udalak hirugarrenei manatzen dizkien azterlanak, proiektuak eta antzeko lanak, elebitan aurkeztu beharko dira, horiek pertsona fisiko nahiz juridikoak izan, betiere bitarteko teknikoak horretarako prestaturik daudenean.

IV._Administrazioekiko harremanak

8. artikulua. Olaztiko Udalak eremu euskaldueko gainerako administrazio publikoetara edo erakunde ofizialetara igortzen dituen agiri, jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan idatzi beharko dira, euskarri bakarrean nahiz bikoan, ukiturikoei hizkuntza bakarrean egitea espresuki hitzartzen dutenean izan ezik, Administrazioaren edo dagokion entitatearen organo eskudunak ezartzen duena kontuan harturik.

V._Administratuekiko harremanak

9. artikulua. Eremu euskaldunean bizi diren pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendutako komunikazio eta jakinarazpenak hizkuntza bietan eginen dira, ukiturikoei hizkuntza ofizialetako bakar batean izateko espresuki eskatzen dutenean izan ezik.

10. artikulua. Zer hizkuntzatan idatzi diren, hartantxe luzatuko dira espedienteen kopiak eta posible baldin bada, elebitan.

11. artikulua. Ahal dela, Udalak izenpetzen duen kontratazio-agiri oro hizkuntza bietan idatziko dira.

VI._Oharrak, argitalpenak eta jarduera publikoak

12. artikulua. Olaztiko udal administrazioak eta bere menpeko erakundeek ematen dituzten xedapenak hizkuntza bietan argitaratuko dira.

13. artikulua. Aldizkariak, kartelak eta, oro har, Udalaren argitalpen guztiak hizkuntza bietan argitaratuko dira.

14. artikulua. Olaztiko udal administrazioeko kargudunak, haiek ezagutu eta komunikatzeko unean egoki juzgatzen duten hizkuntzan mintzatuko dira.

15. artikulua. Udalaren bulegoetako erregistro administratiboetan, inskripzioak hizkuntza bietan eginen dira, zernahi delarik ere aurkeztutako dokumentuan erabilitako hizkuntza.

16. artikulua. Erregistroak ematen dituen ziurtagiriak interesatuak eskatzen duen hizkuntzan eginen dira.

VII._Langileak hautatzea

17. artikulua. Udalak helburutzat du bere administrazio unitate guztiak, herritarrentzat direnak eta orokorrak, hizkuntza bietan aritzea lortzea.

18. artikulua. Olaztiko Udalean lekualdatze, igoera, nahiz beste edozein modutan lanpostu berri bat eskuratzeko, ezinbesteko baldintza izanen da lanpostuari dagozkion hizkuntza eskakizunak betetzea.

Plantilla organikoak ezarriko ditu lanpostu bakoitzari dagozkion hizkuntza eskakizunak.

VIII. _Euskararen erabilera udalerrian

19. artikulua. Euskara herriko esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen egiazko presentzia areagotu dadin, neurri egokiak hartuko ditu Udalak.

20. artikulua. Olaztiko Udalak udalerriko kale, bide, auzo, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta oro har, leku izenak, finkatuko ditu, kasu guztietan euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria errezpetatuz eta hizkuntza bakoitzaren berezko grafiarekin idatziz. Aurreko lerroaldean aipatutako izen ofizialei buruz eztabaida sortuz gero, Udalbatzak erabaki egokiena hartuko du, beti ere Euskaltziandiaren irizpideari jarraikiz.

21. artikulua. Eskolarako adina duten herritarrendako Udalak antolatzen dituen kultur eta aisia jarduerak hizkuntza bietan eskainiko dira.

22. artikulua. Euskaraz alfabetatu nahi duten helduendako dirulaguntzak Sakanako Mankomunitateak eskaintzen dituenak izanen dira. Udalak aipatu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan parte ez hartzea erabakitzen badu, bere dirulaguntzak ematen ahalko ditu helduek euskara ikas dezaten.

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe gelditzen dira ordenantza honen maila bereko edo beheragoko ordenantza edo erabaki guztiak, honekin bat egiten ez badute edo honen kontra badaude.

Azken xedapenak

Lehena._Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa bereziak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko betarazpen organoek.

Bigarrena._Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan arlo horretan indarra duen arautegiari jarraituko zaio.

Hirugarrena._Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko, testua osorik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denean.